


Astekaria



elgoi



GINEKOLOGI

**Cristobal, Gomez, Otalora,
Ruiz eta Estomba** Doktoreak

Urkizu Pasealekua, 11 (Orbea dorrea, 1. solairua)
☎ 12 10 21 - 120200 EIBAR

- ▶ Menopausiaren tratamendua
- ▶ Azterketa ginekologikoak
- ▶ Minbiziaren aurretiko diagnostika
- ▶ Haurdunaldiaren kontrola
- ▶ Bularretako gaitzen unitatea
- ▶ Antisorkuntza
- ▶ Txekeoak
- ▶ Mamografiak
- ▶ Antzutasuna





Pilar ikastetxeko gurasoen, irakasleen eta ikasleen Elkarte Hezkuntzak, San Viator klerigoen eskutik honako heziketa eskaintzen dizue:

EUSKALDUNA: Behar kultural eta sozialei erantzunez.

KALITATEZKOA: Erreformari egokitua.

KRISTAUA: Balore kristauak bereziki lantzen dituena.

SOZIALIZATUA: Elkarbizitzarako eta baketzerako baloreak garatzen duena.

D.B.H. (E.S.O.)

12-16 urte

B eredu INDARTUA
Pedagogi-Titulartasuna:
La Salle Elgoibar

LEHEN HEZKUNTZA

6-12 urte

B eredu INDARTUA

HAUR HEZKUNTZA

2-6 urte

D eredua

ESKAITZEN DIZUEGU:

- **HEZKUNTZA ELKARTEA:** (Ikasle, Guraso eta Irakasleak) identifikatua eta partehartzailea.
- **GELA BEREZIAK:** Informatika, teknologia, liburutegia, laborategiak, polikiroldegia, psikomotrizitate gela...
- **EKINTZA OSAGARRIAK:** Kirolak, txapelketak, txangoak, antzerkiak,...
- **JANGELA:** Irakasleen ardurapean.
- **LAGUNTZA PSIKOPEDAGOGIKOA:** Bertako psikologo eta pedagogarekin.
- **ZENTRU KONTZERTATUA:** 2 urtetik 16ra bitarteko irakaskuntza baimendua eta subentzionatua.

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementería.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martín,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegí, Xabier

Ansola, Nekane Aranburu,

Pello Arrieta, Ina

Garagarza, Amaia

Gorostiza, Maite Iriondo,

Edu Iriondo, Alberto

Iriondo, KOKOE, Imanol

Larrañaga, Javi León, Juan

Mari Mendizabal, Milagros

Oiarzabal, Aitor Zabaleta,

Julen Zabaleta, Deñe

Zabalo, Luzia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-

1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien
erantzukizunik.



kutxa fundazioa
fundación kutxa

ZENBAT BURU



HAINBAT ABURU

Gure bidetik

Belaunaldi berriak haztea gero eta zailagoa delakoa maiz entzuten dugu. Komunikabideei esker mundua txiki samar gelditu zaigunetik, Londres, Pekin eta Durango antzera gelditzen zaizkigu. Begibistara datozkigun aukerak ugaritzen doaz, egunetik egunera. Eta gurasoek, noski, bide onetik nahi gaituzte eraman.

Duela zenbait hamarkadara arte, zentsurari esker, ideia berriei atek ixten zitzaizkien, gizarte aldaketari beldur gutxi izan geniezaiokeelarik. Gaur egun, ordea, sekulako kexak iristen zaizkigu handik eta hemendik: telebistan biolentzia eta sexu gehiegi dagoela, gazteria edozer gauza egiteko gai dela sufritzen duen moral ezagatik... Morala; hitz bedeinkatua.

Hori da biderik errazena: telebistan, bi erronbotara itzultzea, hamabietarako taberna guztiak ixtea, seme-alaboi ganorazko morala ezartzea... Baina, askatasuna guztion ahotan dabilen garai hauetan, hezkuntzak ere horrelakoa beharko luke izan.

Zaila da norbere sinismen eta iritzia alde batera utzi eta gauzen nondik-norakoa objetiboki erakustea.


Nagusitan komunikabideei eskatzen zaiena da. Ez al da hori norbere buruaren heziketa? Azalpenak dira txiki-txikitatik behar ditugunak, inguratzen gaituen errealitatea ultzertzeko. Informazioa, komunikazioa; haren interpretaziorako bide bat irekitzeko. Gizarte moderno honetan, zenbatetan entzuten dugu oraindik haurraren aurrean horrelakorik ez aipatzeko!?

Berrikuntzek beldurtu egiten gaituzte; hala ere, inoiz bakarrik aurkituko gara, aukeraketa geure esku baino geldituko ez delarik. Prest egon gaituzten bada, geroago ezusteko kolperik egon ez dadin. Norberak bere morala eraikiko du eta ez da inorena baino eskasagoa izango, hurkoari minik egiten ez dion bitartean behintzat. Pertsona bilakatuko gara, geure bidetik. Ez da adin kontua.

Orain arte ez diot askatasunari inolako alde txarrik aurkitzen, Kontuz!! Zurea hasten den lekuan amaitzen baita nirea. Lehen esan bezala, ingurukoei kalte egiten diegunean hasten baitugu arazoa.

Lucia Zubiaurre

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

Zergatik eman du Udalak IMH parea- n etxebizitzak egiteko baimena?

Alkatearekin egon gara eta honako hiru arrazoi eman dizkigu:

- Lur-sailak etxebizitzak egiteko izendatuta zeudelako.
- 90ean Diputazioak Plan Partziala onartu zuelako.
- Lur-sail pribatua izanik, jabeak etxeak egiteko saldu dituelako.



KEXAK

Santa Klarako etxe berrietako auzokideek kexa bat ekarri digute. Etxeetatik herrira pasatzeko, lur-azpiko tunel bat egiteko asmoa omen dago. Lehen dagoena ez du jendeak erabiltzen, gauzez batez ere, eta orain lehengoa baino luzeagoa egiteko asmoa dago. Auzokideek ez dute lur-azpiko tuneletan zehar ibili nahi eta dagokionari arazoa konpon dezala eskatu nahi diote.



TXALOOK

"Txalo beroak San Anton eguneko meza nagusi ederragatik. Txaloak Elgoibarko Parrokiako Abesbatzari ta bere zuzendaria dan Laura Bilbao'ri. Txalo berezi bat koruko tenore bakartzalle dan Patxi Ajubitari. Eta txalo sutsu bat koruko partaide eta organujole trebea dan J.Luis Agirre jaunari. Domiña merezi du elgoibartar jator honek. Zorionak danori".

ESKUTITZAK

Etxebizitza bat nahi dut

San Lorentzora pasiaran joaten naiz egunero. Lehengo batean, Ermuaranbide kalean gora nindoala, nare aurretik zijoazen emakume batzuen berriketa entzun nuen. Nonbaiten etxebizitza berriak eraikitzen ari zirela entzun nien esaten. 'Non izango ote?' pentsatu nuen nire barrurako. Erreminta Makinaren Institutura bistaratu bezain pronto erantzuna jaso zuen nire galderak. Asko poztu ninduen etxeak eraikitzen ari direla ikusteak. Prezio nahiko onean saldu dituztela entzun dut, gainera gazteak izan omen dira erosleak. Gauzak dauden bezala egonda, poztekoa da gazteen artean etxebizitza erostera ausartzen direnak (ausardia baino diru kontua izaten da) daudela jakitea.

Hala ere, nire erretorika esaten ari naizen honekin zerikusia duen gai batekin lotu nahi nuke. Ikastola parea, Txarriduna jatetxe atzean hor nonbait, babes ofizialeko etxebizitzak eraikiko dituztela zin egin ziguten Udal agintariak legislazio hasieran. Ez noa betetzen ez diren aginduak zergatik betetzen ez diren aztertzeraz. Gauza bakar bat eskatu nahi nieke gure


agintariei: mugi daitezela behingoz eta egin ditzatela lehen bati lehen etxebizitza horiek. Herriko gazteek eta ez hain gazteek ere eskertuko dizuegu. **A.Z.**

Irakurle!

Atal hau zure eskutitzen zain dago. Eskutitzek gehienez 20 lerroko luzera izango dute eta izen abizena eta NANA beharko dute izan. Argitaratzerakoan, igorleak hala eskatuz gero, inizialak bakarrik ager daitezke. Zuen eskutitzen zain gaude!

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Aste honetan **Ernesto Zubiaur**rek Zaragozatik bidali digun argazkia dugu erretratu zaharren atalean erakusgai. Bere arreba Matildek ekarri digu erredakziora, "begira zelako polita". Ernestok

pozik hartzen duela **BARREN** azaldu digu, eta oraingotan sekula baino gusturago hartuko du, ziur.

Argazkia 1944an aterata dago Pazko egun batean eta bertan azaltzen diren elgoibartarrak hauexek dira:

Ezkerretik hasita, atzean zutik: **Niceto Garate**, **Manolo Arrieta** eta **Roman Garate**. Eserita: **Pedro Jose Arriola** eta **Ernesto Zubiaurre**.

okindegia eta gozotegia

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35
ELGOIBAR

Kafetegia

*Eskulanean
saiatzzen gara*
Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

Badator erreforma

LOGSEren aplikazioa errealitate izango da 96-97 ikasturtetik aurrera. Betiko OHO eta BBB edo BUP desagertu egingo dira eta memorian erretentzeko zail samarrak diren sigla eta hizki berrietara ohitzen joan beharko dugu. Primaria edo LH, DBH edo ESO... Kontua da hemendik aurrera 16 urtera

arte luzatuko dela derrigorrezko hezkuntza. Honek eskemak aldatzera behartu ditu ikastetxeak, hezkuntza eskaintzaren berregituraketa gertatu delarik. Ondorengo lerroetan eta alboko eskeman gauzak zertan geratu diren azaltzen saiatuko gara.



Proiektu bateratua izenpean, Herriko eta Mendaroko bost ikastetxe publikoek bat egin dute hezkuntza eskaintza bakarrean inguruan.

Haur batek bi urte bete bezain pronto, gurasoek herriko ikastetxe batera edo bestera eramango dute. 16 urte bete arte hiru etapa, derrigorrezkoak denak, igaro beharko ditu: Haur Hezkuntza 2 urtetik 6ra bitartean (antzinako eskolaurrea), Lehen Hezkuntza 6tik 12 urtera (antzinako OHO), eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 12 urtetik 16ra (antzinako OHoren azken urteak eta BBBko lehen biak batzen dituen). 16 urtera bitarteko hezkuntza da, derrigorrezkoa.

Mendaroko Ikastola, IMH, Herri Eskola, Meka eta Institutua

Elgoibarko eskola publikoak, Herri Eskola, Arreiturre edo Institutua, Ezenarro edo Mekanika, IMH eta Mendaroko Ikastola, adostasunera heldu ziren eskola mapa berrira egokitzeko asmoz. Bost eskoletako zuzendariak aditzera eman zutenenez “proiektu pedagogiko bateratu eta amankomuna diseinatu dugu, jarraitua eta berdina 2 urtetik 20ra bitartean. Batxilergoak, erdi mailako hezkuntza zikloak (lehen FP eta Modulu 2 deitzen zena) eta goi mailako hezkuntza zikloak (Modulu 3) Elgoibarraren bertan ikasteko aukera eskaitzen dugu”. Bailaran gutxienez, eta ia ziur Euskal Herrian, hiru batxilergoak, humanistikoa, zientifikoa eta teknologikoa, eskaintzen dituzten bakarrak dira. Lehen Hezkuntza Urasandin emango da, Bigarren Hezkuntza edo ESO lehen Batxilergo Institutua zenean, LOGSE batxilergoak Mekan, eta, erdi eta goi zikloko hezkuntza zikloak Mekan eta IMHn. Gaur egun seigarren eta zazpigarren mailan daudenek, Herri Eskolakoek

eta Mendaroko ikastolakoek, Institutura joan beharko dute ESOren lehen zikloko bi ikasturteak egitera. Klaseak Herri Eskolako eta Mendaro ikastolakoek irakasleek emango dizkiete goizez eta arratsaldean.


Hizkuntza ereduari dagokionean, D ereduak bakarrik emango da beharko mailetatik aurrera, gaur egun oraindik ere goiko mailatan B ereduak eta A ereduak ere existitzen diren arren.

Pilar, La Salle eta La Merced

Nekane Aranburu zuzendariaren hitzetan, “La Salle, La Merced eta Pilar ikastetxeek bat egitea erabaki dugu. Orain dela egun batzuk hartutako erabakia da”. Iaztik Pilar ikastetxeak Bigarren Hezkuntza emateko baimena dauka baina “ESOn eskaintza zabalagoa eta kalitatezkoa eman ahal izateko elkartu gara hiru ikastetxeak”. Hiru ikastetxeen bateratzeari esker, espezialitate guztietarako irakasleak eduki ahal izango dituzte. Pedagogi titulartasuna La Salle ikastetxearena izango da, akademikoki irakasleak La Sallekoak dira baina Pilar ikastetxean bertan jasoko dituzte klaseak. Momentuz ESOren lehen zikloa (1. maila eta 2. maila) bakarrik jarriko dira martxan, gaur egun seigarren mailakoak ESoko lehen mailan jarraituko dute eta zazpigarren mailakoak bigarrean. Aurten OHoko zortzigarren maila bukatuko duten ikasleek BBB ikasten jarraituko dute, plan zahharrekin.

16 urtetik aurrera, Pilar ikastetxeako ikasleek La Salle ikastetxean batxilerra egiteko aukera izango dute. “Gure ikasleak zuzenean izango dira onartuak La Sallen”. Baliteke

hala ere, La Sallen duten leku arazoagatik, aurrerago batxilerretako adarren bat Pilar ikastetxean bertan ematea.



Ikastolak 16 urterarteko hezkuntza eskaintza dauka aurtengo ikasturteik. Pilar ikastetxea Eibarko La Merced eta La Salle eskola erlijiosoekin batu da.

Ikastola

Erreformak dioen 16 urtera arteko derrigorrezko hezkuntzak zekarren aldaketa aurreikusiz, Ikastolan BBBren lehen maila ematen hasi dira 95-96 ikasturtean, 92tik duten arren baimena. Alfonso Guilló Ikastolako zuzendariaren hitzetan, "

14-16 urte bitarteko tramoia betetzeko erabili dugu BBB emateko geneukan baimena. Aurrera begira BBB desagertu egingo da eta ESO sartuko da indarrean, hau da, 14 urterekin bukatu beharrean 16 urterekin amaituko dute Ikastolako

fasea". Seigarren eta zazpigarren mailakoak ESON hasiko dira datorren ikasturtean.

Laburbilduz, erreformaren ondorioz, 14 urterekin bukatu beharrean, 16rekin amaituko dute Lehen Hezkuntza.

LOGSE		PROIEKTU BATERATUA: Herri Eskola, Mendaroko ikastola Arreiturre, Ezenarro	SAN BARTOLOME IKASTOLA	PILAR IKASTETXEA LA MERCED LA SALLE
HAUR HEZKUNTZA (2-6 urte)		HERRI ESKOLA eta	IKASTOLA	PILAR IKASTETXEA
LEHEN HEZKUNTZA		HERRI ESKOLA eta	IKASTOLA	PILAR IKASTETXEA
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA		ARREITURRE (Institutua)	IKASTOLA	LA SALLE ELGOIBAR (Pilar)
BATXILERGOAK (16-18 urte)		EZENARRO (Mekanika) / LA SALLE EIBAR		
ERDI MAILAKO HEZKUNTZ ZIKLOAK		EZENARRO (Mekanika) IMH		
GOI MAILAKO HEZKUNTZ ZIKLOAK		EZENARRO (Mekanika) IMH		

Zer da menopausia?

Emakumeari hilekoa desagertzen zaion garaia da menopausia. Sasoi horretatik aurrera emakumeak seme-alabak izateko gaitasuna galtzen du obarioak funtzionatzeari lagatzen diolako.

Obarioa seme-alabak izateko organoa izateaz gain, hormonak ere sortzen ditu: barruko organo genitalak ernaltzeko hormonak, bularra hazi eta leun mantentzeko hormonak, bajina hezea, osasuntsua eta purua mantentzeko hormonak, azala elastikoa mantentzeko hormonak, zirkulazio onerako arterien paretak erlajatzeko, organo muskularrak eusten dituzten giharreak hobetzeko, hezurren barruko kaltzioa gordetzeko hormonak eta azkenik, oreka psikikoa mantentzen duten hormonak.

Ikerketa estatistikoek diotenez, menopausiak eragindako efektuak ez dira berdinak emakume guztietan. Sintoma hauen intentsitatea ere ezberdina da. %74ak gutxi gorabehera beroaldiak izaten ditu, %50ak palpazioak, %67ak izerdia, %30ak txindurritze sentazioa, %46ak bajina sikua, %24ak buruko minak eta %63ak lo-eza. Azkenik, sintomarik garrantzitsuena dena aipatuko dut: OSTEOPOROSIA.

Zer da Osteoporosia? Menopausiaren kalterik larriena da eta eragin pertsonal eta sozial handiena duena. Hezurretan kaltzioa galdu egiten da eta ahuldu egiten dira. Organismoa zahartu egiten delako gertatzen da. Gizonei nahiz emakumeei gerta dakieke. Baina emakumeengan nabarmenagoa izaten da. Estrogenoek kaltzioa hezurretan pilatzen dute. Estrogenorik ez edukitzeak zerbikaleko, gerriko eta dorsaletako minak sortarazten ditu. Erorketa simple bategatik hezurak apur daitezke, femurreko burua batez ere.

Badira osteoporosia edukitzeko arrisku faktoreak. Emakume argalak, erretzaileak, edateko ohitura duenak, eta aurpegiz zurbila denak osteoporosi gogorragoa sufritzeko arrisku handiagoa du menopausia garaian.

Euskal Herrian batzbestek 48 urterekin izaten dute emakumeek menopausia. 1900ean 38 urteko bizi esperantza zuen emakumeak Euskadin, eta 1990an, berriz, 78-79 urtekoa. Honek esan nahi du emakumeak beren bizitzaren heren bat menopausia dutelarik bizi direla, eta milaka emakume direla egoera honetan daudenak.

Zein da menopausiarentzako

tratamendua? Lau zutabetan oinarritzen da: janari errejimena jarraitu, ariketa fisikoa egin, aktibitate mentala izan (telebista gutxi ikusiaz) eta tratamendu hormonal jaso.

Dena dela, kontuan izan behar dena zera da, emakume beste menopausia daudela. Guztiek ez dutela tratamendu beharrik izaten eta ginekologoak esan behar duela zer-nolako tratamendua jarraitu behar duen emakume bakoitzak.

Menopausia dela-eta norbait nire kontsultara datorrenean bi gauza funtsezkoak direla deritzot. Batetik, bi aulki, bai. Bata emakumearentzat eta bestea medikuarentzat. Eta bestetik, hitzeging, hitzeging eta hitzeging.

(Erredakzioan itzulia)



ALFREDO OTALORA DOKTOREA

Play-Back SAIOA
PLAZA HANDIAN

Otsailaren 17an, larunbata, arratsaldeko 4,30etatik aurrera, ihauteriak direla eta, DEMASEKO PLAY-BACK SAIOA GONBIDATZEN ZAITUZTEGU.

Parte hartzeko zer egin behar da?

- Taldeka edo banaka 2 abesti aukeratu (gutxienez 1 euskaraz).
- Aukeratutako abestiak, Elgoibarko Izarrara eraman, otsailaren 9a, ostirala, baino lehen. (Zintak itzuliko zaizkizue)

Zuen zain gaude. Animatu!

Antolatzailea: Atxutxiamaika B. T. **Laguntzaileak:** Elgoibarko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia

Igarri al duzu menopausiaren eraginik?



CONSUELO LOPEZ
59 urte, etxekoandrea

Oso gaizki pasatu nuen, oraindik ere sofokoak izaten ditut batzuetan. Ez nuen tratamendu berezirik jarraitu, pasatu beharreko zerbait zen eta kitto.



KARMELE GABILONDO
61 urte, etxekoandrea

Aspaldi pasau naban. Gauza normala izan zan. Nerbiosia beti izan naiz, lehen, orain eta beti. Jun zan eta akabo. Ostantzian, sofokuak ondiok ere badauzkat.



ASUN GARAY
64 urte, etxekoandrea

Berotasun ikaragarriak izan nituen urte askotan. Lehenengo urteak nahiko gaizki pasatu nituen. Medikuariengana joaten nintzen baina besterik gabe, ez nuen ezer berezirik egin.



ELISABETH ALBERDI
61 urte, etxekoandrea

Gazte pasau nuen nik, aspaldi. Gaizki ez baina azkuriak, lo ein ezinak, berotasunak... Sofokuak derrepentian etortzen dia eta jendian aurrian apurua pasatzen naban.



MAGDALENA PASCUAL
48 urte, etxekoandrea

Bai, oraintxe pasatzen ari naiz eta txarrena berotasunak dira. Menopausiagatik ez naiz bereziki zaintzen eta tratamendurik ere ez dut jarraitzen.



JUANA AZPIAZU
64 urte, etxekoandrea

Edadiak berak ematen duna da ta hola pasau bihar. Inoiz berotasunik pasau izan naban baina ez beste batzuk beste. Hori bai, inoiz ez naiz izan nerbiosie eta oin piskat banaiz.

LEKU-EDER ETXEBIZITZAK

**ETXEAK,
GARAJEAK ETA
LOKAL KOMERTZIALAK
SALGAI**

INFORMAZIOA ETA SALMENTA:

Ubitarte 2 behea. Tel 74 13 33
ELGOIBAR (GIPUZKOA)



■ HBk antolatutako aurkezpena hilaren 17an

Elgoibarko Herri Batasunak "Ezker Abertzalearen alternatiba demokratikoa" deritzonaren aurkezpen publikoa egingo du hil honen 7an, asteazkena. Saioa iluntzeko 8etan hasiko da Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

■ Intsumituen epaiketen aurkako kontzentrazioa

Larunbatean, hilak 3, Asier Zengotitarren epaiketa dela eta, kontzentrazioa burutuko da Plaza Handian. Intsumisioaren mugimendurekin bat datozen herritar guztiak Plazan bildu eta epaiketa salatzea da asmoa. Kontzentrazioa eguerdiko 12etan burutuko da Antimiliek antolatuta.

■ Iñaki jaio elgoibartarra gose greban dago


Euskal Herriko presoak gose grebari ekin diote Senideak-ek daramanarekin bat eginaz eta dispertsioa salatu. Gose greba indefinitua da eta talde bakoitzak 15 egun emango ditu greban. Joan den igandetik dago gose greban Iñaki Jaio elgoibartarra, Hueskako espetxean dagoena. "Dispertsioa legez kanpokoa den arren, 1987an hasi zen. Orain agertu berri da PNV dispertsioaren aurka" eta Europar Parlamentuan ere salatu dute. Elgoibarko Gestoren hitzetan, "dispertsioarekin senideak ateratzen dira galtzen batez ere, askotan ezin izaten baitute euren senitartekoa ikustera joan. Senideak presionatu nahi izan dituzte, presoak damutu zitezten. Baina ez dute lortu". Espetxeetako funtzionarioak ere salatu zituzten, "legea oso gogor aplikatzen dute preso euskaldunen aurka". Komunikabideei buruz adierazi zuten, "Estatuaren alde jokatzeko ari dira, askotan politikoak ausartzen ez direnak esanaz." Gose grebarekin bat egiteko asmoz, Gestorak hainbat ekintza antolatu ditu. Larunbatean 8 orduko kartelada egingo da Deban, Elgoibarri 3etatik 4etarako txanda egokitu zaio-larik. Ondoren, 8ak inguruan, manifestazioa izango da.

Argazki erakusketa Kultur Etxean



Ongarri Argazki Elkartearen eskutik, Pedro Luis Ormazabal bergararraren argazki erakusketa antolatu da Kultur Etxeko erakusgelan otsailaren 8tik 29ra bitartean. Bergarako argazkilariaren lana antzinako prozesuen berreskuraketan oinarritzen da. Pinturak argazki bihurtzen ditu, artisaupaperak emulsiionatuz eta teknika berezi baten bidez errebelatuz. Ikusgai

dauden beste argazki batzuk egileak berak margotutakoak dira, margoa eta argazkiaren arteko muga fina hautsiz. Honako honetan bergararrak aurkezten duen bilduma Euskal Herrian ateratako argazkiek osatzen dute, tradizioak leku berezia duelarik. Bisita ordutegia: egu-nero, igandeak izan ezik, arratsaldeko 6etatik 9ak arte.



Gipuzkoako Judo Txapelketako bigarren jardunaldia burutu zen joan den zapatuan Olaizaga kiroldegian. 10 eta 13 urte bitarteko 200 haur inguruk hartu zuten parte. Ibai Klubeko neska-mutilek urrezko lau domina, zilarrezko beste lau eta brontzezko bat lortu zituzten. Infantiletan Egoitz Mora, Javi Muñoz, Zuhaitz Azpiazu eta alebinetan Maialen Morarentzat izan ziren urreak. Zilarrezko dominak Ganix Ostolaza, Esther Idiakez eta Xabi Gonzalezek eskuratu zituzten infantilen mailan, eta alebinetan Aitor Gabilondok. Azkenik, brontzezko domina alebinetan parte hartu zuen Josu Idiakezentzat izan zen. Gipuzkoako Txapelketaren azken fasea Arrasaten izango da datorren hilean.



Elgoibarko Herri Institutuak 96-97 ikasturterako hezkuntza eskaintzaren aurkezpena egin zuen asteazken iluntzean Mekanikan. Herriko eskaintza publikoaren nondik-norakoak azaldu zituzten eta lehen aldiz bost ikastetxek hezkuntza proiektu bateratua egiteak duen garrantzia azpimarratu zuten. Argazkian ezkerretik hasita, Timoteo Uzin Herri Eskolako zuzendaria, Iñigo Sorazu Mendaroko Ikastolako zuzendaria, Angel Ugarteburu Batxilergo Institutuko zuzendaria, Gillermo Garate alkatea, Benjamin Atutxa bailarako Eskola Kontseiluko kidea eta Carlos Ansola eta Joxean Egaña, Mekanikako eta IMHko zuzendariak, hurrenez hurren.

Herri Eskolak logotipo berria

dauka. Eskola Publikoaren lehen jaialdian erabilitako logotipoa apur bat egokitu eta berau aukeratu zuten eskolako irakasle eta gurasoek. Kolore biziak dituen logotipoan ume batzuk agertzen dira eskola baten teilatupean, eskuetan uztaia eta arkuak eusten dutelarik. Sinbolikoki dantza, jolasa eta eskola uztartu nahi ditu logotipoak.



500 sinadura aurkeztu ditu Gazte Asanbladak

500 sinadura aurkeztu zituen Gazte Asanbladak Udaletxean joan den asteazkenean. Iazko maiatzean Gazte Asanbladak "Elgoibarko Gaztetxearen aldeko ekimena" izeneko txostena aurkeztu zuen Udaletxean herriko pertsona, elkarte eta kolektiboen sinadurarekin batera. Udaletxetik ez zuten erantzunik jaso, eta honen aurrean, berriz ere sinadurak biltzeari ekin zioten, kide baten hitzetan, "Gazte Asanbladari erantzuten ez badiote ere, legearen arabera, pertsona partikularrei erantzun beharra dute". Oraingoan, sinatu dutenek Udalari elkarrizketekin hastea eskatzen diote. Era berean, aipatu txostenaren balorazioa ere zein den jakin nahi dute, "Elgoibarko gazteon etorkizuna eta drogomenepekotasunen prebentzioari dagokionean positiboa al den proiektuaren gauzatzea".

Bederen Bat antzeztaldea Herriko Antzokian

Gaur, hilak 2, Bederen Bat antzeztaldea Donostia literatur sariaren irabazle den "Zu(t)gabe" lana taularatuko du Herriko Antzokian. Mikel Garmendia eta Pilar Rodriguez eta Aitzpea Goenaga telebistako aktore ezagunek osatzen dute aktore zerrenda, azken honek zuzendaritza lanak egiten dituelarik. Zu(t)gabe lanak, alargun baten gorabeherak kontatzen ditu, bakarhizketa elkarrizketa bihurtuko delarik. Saioa gaueko 22,30etan hasiko da. Sarrera: 500 pta.

Odol ateraldia

Hilaren 9an, ostirala, ateraldia izango da arratsaldeko 6,30etatik aurrera Odol Emaileen egoitzan. Aurrez abisatuta daudenei eta emaile berriak izan nahi dutenei ere luzatu nahi zaie deia. Odola emateko baldintza bakarra 18 urtetik gorakoa izatea da. Odola emateaz gain, bazkide babesle izateko ere izena eman daiteke.

Haurren play-back saioa

Atxutxiamaika Begirale Taldeak Ihauterietako play-back saioa antolatuko du Udalaren laguntzaz. Otsailaren 17an, larunbata, arratsaldeko 4,30etatik aurrera, taldea zein banaka, gus-tuko abestiak kantatzeko aukera izango dute LHko 1. mailatik OHoko 8.era bitarteko haurrek. Ekitaldia Plaza Handian izango da.

Santa Ageda Mendaron

Mendaron ere aterako dira Santa eskeko koruak. Larunbatean, hilak 3, goizeko 9etan elkartuko dira frontoian. Talde bat Etxabemendi eta Aranerrek inguruan ibiliko da eta bigarrena Sahatsen mendi eta Mendarozabalena. Arratsalde partera herriko kaleetan zehar arituko dira koruak Santa eskean kantari. Biltzen duten liburua Dantzari Taldearentzat izango da.

Jesus Mari Makazaga:

“Euskalkietan dago euskeraren aberastasuna”

Elgoibartar honek 30 urte ditu. Elgoibarren bertan bizi da, bere lana medio denbora asko Gasteizen pasatzen duen arren. 1988an Euskal filologian lizentziatu zen.

Egun, Euskal Herriko Unibertsitatean Farmazia eta Filologia fakultateetan dihardu irakasle lanetan. Honez gain, Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeko kide ere bada.

- Zein da zure lana EHUn?

- Batetik, Farmazia fakultatean euskara tekniko irakasle naiz. Ikasleak karrera bukatzean beraien lana euskaraz ere egin ahal izateko. Bestetik, Euskal Filologiako fakultatean, lehenengo mailako ikasleei gramatika kontuak irakasten dizkiet. Fakultate berean, gure departamentuak filologia guztiei eskaintzen dien ikasgai baten zati bat ere irakasten dut.

- Zergatik aukeratu zenuen ikasketa hauek?

- Hasieran, bokaziotxo bat banuen. Horretarako piska bat lagundu zidan institutuan euskarako irakasle onak izateak. Horrek bultzatu ninduen eta hizkuntzaren aldeko gaietarako interesa ere piztu zidan neurri batean.

- Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeko kide ere ba omen zara.

- Orain dela sei urte sartu nintzen bertan. Beka baten bidez, Euskaltzaindiko Gramatika Batzordea egiten ari den gramatika laguntzeko aukera izan nuen. Hasiera batean, nire lana, batzordearen eskarei erantzuteko, Euskaltzaindiak duen literaturako korpus informatiboa erabiltzea zen. Egiten ari den gramatika hori literaturan



“Euskera gure altxor bat da, eta zaindu, baloratu eta maitatu ezean bere etorkizuna ez da batere ona izango”

oinarrizten baita. Beraz, beka horrekin hasi nintzen eta unibertsitatekoa etorri zenean, batzordekide bezala jarraitu nuen.

- Inoiz aztertu al duzu gure herriko euskara?

- Unibertsitatera sartu nintzenean nire asmoetarikoa bat, Elgoibarko hizkeraren azterketa egitea zen. Doktorego tesia egiteko aukeratu nuen gaia izan zen. Hasierako lana eginda daukadan arren, benetako azterketarekin ez naiz hasi. Lekuan lekuko hizkuntzak aztertzeari beharrezkoa

deritzat, nire ustez beraue-tan baitago euskararen aberastasuna, nahiz eta egun, euskararen homogeneizazioa gertatzen ari den neurrian, lekuan lekuko hizketen bizitasuna galtzen ari den.

- Elgoibarren nahiko euskara hitzegiten al da?

- Ez. Datu zehatzak ez dakizkidan arren, edozeinek igar dezake behar adina ez dela hitzegiten. Agintarrietatik hasita, beraiek ejenplua eman ezean herritarrok ez dugu arazoa aintzat hartzen.

Euskaldunak, eta baita erdaldunak ere badauka zeregina.


- Gomendio bat, egunero bizitzan euskara gehiago erabiltzeko.

- Euskara gure altxor bat dela pentsatzea eta zaindu, baloratu eta maitatu ezean, bere etorkizuna ez da batere ona izango. Beraz, nahiz eta kasu batzuetan gaztekeraz mintzatez derrigorrezkoa izan, sarritan esnobismo edo itxura kontuegatik euskara ulertzen duen pertsona bati, gaztekeraz mintzatu ohi gatzazkio. Beraz, nik esango nuke, nahiz eta gaztekeraren pisuaren aurka borroka egitea zaila izan, horretan saiatu behar-ko genukeela.

- BARREnek zein eragin izan du Elgoibarko euskararen?

- BARREN hasi zen arte, ohituta geunden Elgoibarko berriak gaztekeraz irakurtzera, neurri haundi batean behintzat, beraz, bere eragina positiboa izan da. Batez ere jende nagusiarentzat, euskaraz irakurtzera ohituta ez egotetik, astero zertxobait irakurtzera igaro baita. Gazteen aldetik, ez maila linguistikoa, baina Elgoibarko berriak jakiteko eta jendea ezagutzeko balio duela uste dut.

IRATI AGIRREAZALDEGI

**FERISALTSAN**

Landareak eta ahuntzak izan ziren ikusgai eguzki epeletan

Landareen garaia hasi da, dagoeneko. Ferian ere izan ziren makina bat landare ezberdin ikusgai, besteak beste, sagarondo eta madariondoa bai eta larrosak eta bestelako loreak ere. Halere, gure kamarak hartu zuen irudien artean bakarra aukeratu behar eta guri atentzioa deitu zigutenak argazkian ikusten diren bi ahuntzak izan ziren, txikiak batez ere. Lau egun inguru zituela esan zigun jabeak eta benetan harritzekoa da. Izan ere, gizakiok lau egun baino ez dugunean jan, lo eta negar bakarrik egiten dugu. Abere asko, ordea, jaiotzen diren



une berean dira tentetu eta ibiltzeko kapazak. Zuri-zuria, hainbat eta hainbat pertsona hurreratu zituen ahuntz txikiak bere ondora. Halere, an-

txumea amaren epelean egoten saiatzen zen, oraindik ere kume izatearen seinalea, du-darik gabe.

San Bixente eguna San Roken

San Bixente eguna izan zen urtarilaren 22an. Aurten ere, ohiturari jarraiki meza egin zen San Rokeko ermitan. Don Benantiok eskainitako eliz ospakizunera dexente herritar hurreratu zen eta horien artean Gillermo Garate alkatea, Ana Santolaya eta Belen Elorza zinegotziak ere ikus zitezkeen. Mezaren ostean ermita gaineko elkartera igo eta bertan haiaiketako egitea ei da ohitura. Eta han elkartu ziren guztiak, mahai luzeetan eseri eta salda beroaren ostean txorizo eta odoloste pintxoak gustura baino gusturago janaz.



Egin al duzu azaleraren aitorpena?

Nekazaritzako ustiategien erregistroa

1993an Eusko Jaurilaritzak Ustiategien Inskripzioen Erregistroa onartu zuenetik, Gipuzkoa osoko Nekazal Etxeetan baserriarrei galdezka eta zirika gabiltza.

Joan diren bi urteetan zehar edozein abere mota zeukatenei eginarazi egin diegu. Aurten, falta diren abeltzaintzei eta mendi sailak dauzkatenei tokatu zaie txanda.

Zer da Nekazaritzako Ustiategien Erregistroa?

Erregistro hau Euskal Autonomi Elkarte ustiategi (esplotazio) guztien datuekin osatuta dago. Ustiategi bakoitzari - normalean baserriak- fitxa bat egiten diogu eta fitxa horretan baserriarekin erlazionatuta dauden kontu guztiak zehazten ditugu.

Fitxa hau irekitzea ezinbestekoa da nekazal arloarekin zerikusia duten guztientzat, bai ganadu, barazki edo loreak lantzen bai eta mendi sailak dituztenentzat ere.

Fitxa bakoitzean ondoko informazioa biltzen dugu: ustiategiarekin zerikusia duten pertsonen datuak, ustiategiaren datuak, hau da, baserri edo elkartearen izena eta kokapena, abereei eta ustiategiko lurrei buruzko datuak, hau da, non dauden, zenbat hektarea dituen erabilitako lur-sailak eta zertara zuzendua dagoen sail bakoitza. Erabiltzen diren lurak hartzen ditugu kontuan, ez jabetzakoak bakarrik.

Bai hustiapenek bai titularrek, edozein sustapen lortzeko ezinbesteko baldintza dute Erregistro honetan sartuta egotea. Ganaduaren prima kobratu edo mendi lanak egin ahal izateko, Administrazioak aipatu zerrendan izena emana izatea eska dezake.

Bestalde, Herri Administrazioak herrialde osoko datuak erabil ditzake estadistikak egiteko. Baina, kontuz! Nekazaritzako Ustiategien Erregistroko izena emateak ez dakar inolako kalterik ez etekinik Haziendarekin.

Azkenik, txartel bat prestatuko da, baserriko karne-ta deitzen dena. Txartel horretan izena, deiturak eta titularren NANaz gain, ustiategiko kodigoa eramango du. Txartel hau Nekazari bulegora joaten zaren bakoitzean eraman beharko duzu, tramite guztiak horrekin egingo dira eta.

Deklarazio hau egin ahal izateko bulegoetan katas-troaren liburuak eta airez ateratako argazkiak badauzkagu. Hauen arabera, lur zatiren poligono, partzela eta neurriak apuntatzen ditugu Erregistroan.

Dena den, deklarazioa egitera etortzen zarenean erabiltzen dituzun terrenoak noren izenean dauden baldin badakizu askoz hobeto, oso komenigarria da kontribuzioaren errezihoan begiratzea titularra nor den zehatz jakiteko.

Deklarazioa behin eginez gero ez da urtero errepikatu behar, baina urtean behin aukera izaten da datuak aldatzeko.



MIGUEL ANGEL LOPEZ
(Nekazal teknikoa)



Simon Aldabaldetrekua, 41 urte
Bakarkoa baserria (Lastur)

Hirugarren aldiz ein dot nik aurten, txahalen primetarako izaten da batez ere. Segun eta zenbat lur dakazuden, arboletarako zenbat dakazun, labrantzarako zenbat erabiltzen dozun... dirulaguntza bat edo beste ematen dabe.


Jose Angel Egaña, 36 urte
Maixa baserria (Mutriku)

Ondiok ez det ein baina ingo det. Neretzat subentzio bat egiteko hurrenbeste paper egin biharra atraso bat da, ez dau kompensatzen gero ematen ditzuen laguntzetarako. Gainera badakixe bakoitzak zenbat dakagun.




Agustin Urain, 61 urte
Erreizabal baserria (San Migel)

Ez dakitx ezer, zeozer datorrela entzun dot baina ez naiz enteratu oso ondo. Dana dala, egunen batian jun biharko naiz hobeto enteratzera, zer eta zertako ein bihar dan edo.



M. Jesus Arriola, 46 urte
Arana-Etxeberri baserria (Mutriku)

Laugarren aldiz ein dot aurten. Terrenua saldu edo beste edozer eitia nahi badozu gauzak garbi euki bihar dia. Ez da liosua izaten, gainera lagundu eitzen dizue.



Patxi Izaburu, 51 urte
Urain-Itziar baserria (Itziar)

Oin bi urte ein naban eta kanbixorik egon ez danez ez dakat berriz ein biharrikan aurten. Hori laguntzia jasotzeko izaten da, makinaria ekartzeko eta.



URRUZUNO ETXETXO

Urruzuno bailaran, bidea azkenera arte jarraitu eta han kokatzen da Urruzuno-Etxetxo baserria. Gezurra dirudi, nola kaletarrok askotan ez ditugun herrian bertan dauden parajeak ezagutzen. Eguna nahiko triste eta gris atera bazen ere joan ginenean, Urruzuno-Etxetxo baserritik paisaia izugarri polita ikus daiteke. Aspalditik bizi dira San Martindarrak bertan. Jose San Martinen aitaren aitona ere bertan bizi omen zen. Ez da, ez, gutxi.



Urruzuno bailaran, bidearen bukaeran dago Urruzuno Etxetxo baserria.

Gaur egun apenas aurkitzen den baserritik bizi den familiarik. San Martin-Astorkiatarrek horietakoak dira. Beldurak dituzte, esne behiak, eta kalean ezezik, Gurelesari ere sal-tzen diote, “baina geizki pagauta dao. Oin dala sei urtetik ez da preziua ixo, aldrebes, bajau ere ein da litroko”. Esan digutenez, jendeak ez du estimatzen herrian bertan jasotako produktua izatea, “kajako esnia erostera ohixu da jendia. Lehen askoz gehixu hartzen zan baserrikua”. Bi egunean behin joaten omen dira Gurelesakoak eta bataz beste 250 litro saltzen dute. Makinak dituzte jeisteko, “eskuz aspaldi laga zioun eitxiari, 15 urte edo. Ederra aldia!”.

Kalean osasunik ez

Jose San Martin izan zen garai batean kalean lanean, tailerrean, “baina ezin. Osasuna galdu naban nik, ezin nitzan tailer zuluari sartu eta han zortzi orduan egon”. Baserrira itzuli zen eta han bizi da gustura. M.Teresa mendarotarra da eta berak ere baserriko bizitza gustuko du. Ez ziren kalea jai-tsiko, “handik zeozer ixotzekotan jorjala hartuko neuke, hilero jorjala segurua eukitzia. Ostantzian ezer ez”, jakinarazi digu M. Teresak. Halere, Madalenak, Joserren amak, bestelako iritzia du, “ni gustura bajatuko nitzake ka-

lera. Oin jubilauta, baserrixan egun guztian aspertu eitxen naiz, beti pinu artian. Kalian jubilauetara jun lagunekin, karta jokuan ibili...”. Ma-

dalenak esan digunez, “nere senarra zanak argi esaten zaban, berriz jaixoko balitz ez lukeela baserriak ostantzian harrapauko”.

Enpresa ikasketak

Seme nagusiak, Xabierrek, enpresariales ikasi du. Edurne oraindik institutuan omen dabil. Biek laguntzen dute baserrian behar izaten den guztietan baina ez zaie ikusten nondik joko duten, kalera jaitziko diren ala baserrian geratuko. Bietara ere, datorrena datorrela.

Josek gogoan du haurtzaroa eta gaztaroa, “orduak kalera ez ginan bajatzen oinbeste, bidia ere ez zauan oin bezain ondo eta”. Auzoko umeak elkartzen ziren eta denak batera moldatzen ziren jolasean, “ezkutaketetan... Baina, onena Lerunen

partiduak egoten zirenean izaten zan. Baloiak in bajatzen ginan eta partidua amaitzen zanian gu hasten ginan futbolian”.

Umetan jolasa nagusi eta orain, berriz, lana. Oporrik ez dago baserrian, “azkenengo aldiz Madrilerara jun ginan oporretan, ezkondu ginanian. Ordutik egun bat edo bi, asko jota. Hemen ez dao permissorik beste ezertarako”.

URRUZUNO ETXETXO

- **AUZOA:** Urruzuno
- **BIZILAGUNAK:** Madalena Etxaniz, 75 urte, Jose San Martin, 50 urte, M.Teresa Astorkia, 49 urte, Xabier San Martin, 23 urte eta Edurne San Martin, 16 urte.
- **HEDADURA:** 18 hektarea.
- **GANADUA:** esnetarako behiak.
- **PRODUKTUA:** ortuko barazkiak.

EZTANDAK

Azkoitiko errepide berria egin zutenean makina bat susto jasan behar izan zuten, bai Etxe-txokoek bai eta Urruzuno bailarako gainontzeko baserrikoek ere. “Behin baino gehixotan, ortuan lanian egonda, demaseko esplosioa izaten zan eta lurrak hanka azpitan itzelezko dardaria ei-txen zaban”. Gaur egun guztiontzat benetan eroso den bide berria egiterakoan, behin baino gehiagotan bota behar izan zuten mendia eta horrek eragiten zituena eztrandak. Ohitu ere ohitu zirela esan behar, baina, “demaseko lasaitxua hartu genduan dana amaitxu zabenian”.

Eusebio Zenarruzabeitia:

"Morroi jun eta semekotzat hartu ninduten"

Aulestin jaio zen orain dela 67 urte. Bizkaitarra, beraz. Halere, duela 53 urtetik, Elgoibarri estuki lotuta dago.

13 urteko mutikoa besterik ez zenean, Zelaundi baserrira etorri zen morroi. Hemen geratu zen. Gripeak erdi jota baina ahalegin bat eginaz hurreratu zaigu Eusebio eta besteak beste, Ameriketara joateko aukera ere izan zuela jakin dugu. Gaur egun bakarrik bizi da, jubilatuta eta lasai. Eta afizoen artean, Mintxetara joatea atsegin du, futbola ikustera, "lehen ere juten nitzan Lerunera baina oin gertuo dakat Mintxeta".



- **53 urte Elgoibarren, Eusebio.**

- Bai, 13 urteko mutil koskorra nitzan etorri nitzanian. Anaixa egon zan lehenengo, gero harek ez zabala bueltatzerik nahi eta ni jun nitzan Zelaundi-
ra morroi.

- **Zer dela eta?**

- Zazpi anai-arreba ginnan etxian eta danentzat ez zauan nahikua. Lehen edo beranduo etxetik alde ein bihar. Aulesti herri txikixa zan eta baserrixak ez zaban danentzat jatekua ematen. Beste batzuk ere neskame jun zian, ni morroi etorri n-nitzan Elgoibarrera.

- **Halere, soldadutzatik bueltan zerbait aldatu egin zen, ez?**

- Bueno, baietz esan laike. Nik Donostixan ein naban soldautzia. Koinatuak Ameriketara alde egin zaban eta nere anai

batek ere bai. Soldautzatik bueltan, neretzat ere tokixa ta lana bazaula esan zien eta nik nagusi-xei esan niuen.

- **Baina...**

- Eurak ez zeuken seme-alabarik, bakarrik zeuden eta euren ostian baserrixa zeini laga ere... Ez zan erreza. Ni urte askuan egon nitzan eurekin, semekotzat hartu ninduen eta "hijo adoptivo" eitxia eskaini zien.

- **Eta zuk onartu.**

- Bai, hala da. Neretzat ere eurak aitxa eta ama bezelakuak zian, nere benetako gurasuekin

baino denbora gehixo pasau naban eurekin eta! Edadian maiorixia nakan eta nere gurasuek ere eman zien permisua, papeleua egin eta listo. Neu geratu nitzan baserrixakin eta oin bakarrik bizi naiz.

- **Gurasoek hartuko zuten penarik ba.**

- Bueno, lehen edo beranduo batera edo bestera jungo nitzan eta... Gainera tratua ez gendun sekula galdu, bisitan etortzen zian.

- **Familia handia duzu, beraz.**

- Bai, benetakua eta adoptibua. Familixan asko

irabazi naban, batetik eta bestetik.

- **Eta baserria zuretzat.**

- Bai, bakarrik bizi naiz oin. Gainera jubilauta nao eta lehen baino trankillaua da bizimodua.

- **Kalera jaisteko tentaziorik?**

- Ez. Euki izan naban tailarrian lan eitzeke ofertarik baina ni baserrixan gustura, ganauakin eta ortuan... Neuretzako ateratzeko adina banitzan eta tira, holaxe ein dou aurrera.

- **Telebistan ere atera zarela jakin dugu.**

- Bai baina ondiok ez dot ikusi, gauza bat eta bestia dala eta bi bider bota daben arren ez dot aukerarik euki. Baserrixan egon zian eta nere bizitza kontau niuen, imajinak hartu ganauakin eta...

"Familixa haundixa dakat, benetakua eta adoptibua"

GEHIGARRI HONETAKO KOLABORATZAILEAK: Asier Albizu, Agustín Irueta eta Iñaki Oñederra.

Migel Angel Dominguez

Polikiroldegiko masajista



- **Masaia hartzea ala ematea?**
- ▶ Batzuetan hartzea, baina nahiago det ematia.
- **Nor astinduko zenuke masaia gogor batez?** ▶ Inork ere ez du merezi.
- **Zerk behar luke erlaxatzea masaia baten bidez?**
- ▶ Gizarte honetan dagoen tentsioa asko arinduko litzateke denok noizean behin masaia bat hartuko bagenu.
- **Plastilina bazina, zein itxura emango zenioke zure aurpegiari?**
- ▶ Orain daukadan berdina.
- **Hirietako masifikazioan gustura sentitzen al zara?**
- ▶ Bai, zergatik ez?
- **Zuk zer egiten duzu erlaxatzeko?**
- ▶ Musika lasaia ipini eta gorputzaz, arazoez ahaztu.
- **Zortea, kasualitatea ala ahalegina?**
- ▶ Norberak bere ahalegin eta lanaren bidez lortzen ditu gauzak.
- **Dietarik egin izan al duzu inoiz?** ▶ Ez dut beharrik izan.
- **Gauza pikanteak gustatzen al zaizkizu?** ▶ Ez.
- **Zein pelikulatako protagonista izan nahi zenuke?**
- ▶ Ez dut sekula pentsatu. Ez dakit.
- **Kendu zure bizitzatik 3 gauza.**
- ▶ Ez kendu ez jarri, dagoen bezala utziko nuke. Gustura nago.
- **Joango al zinateke ilargira?**
- ▶ Bai, esperientzia berri bat izango litzateke.
- **Zein ikastaro egingo zenuke gustura?** ▶ Osasunari buruzko edozein.
- **Zerk sortzen dizkizu hotzikarak bizkarrean behera?** ▶ Hotzak.
- **Oinutsik ibiltzeko ohiturarik ba al duzu?** ▶ Noizean behin bai.
- **Ogitartekorik gogokoena?** ▶ Ez daukat berezirik.
- **Kolekzionari egiten al duzu?**
- ▶ Bai, seiloak eta BARREN guztiak kolekzionatzen ditut.
- **Nori egingo zenioke monumentu bat?** ▶ Elgoibartarrei. Pakearen usoa jarriko nuke plaza erdian, solidaritatearen islada.

SANTA AGEDA

DOINUA:

Dios te salve

Dios te salve Ave Maria
Jainkoak gabon diyela
endredatzera etorri gera
lotxo goxuan daudela

Auzorik auzo atera gera
gaurkoz dozena bat gazte
Santa Ageda bihotzkuak
merezi zuen hainbeste

Otsailan bia Kandelaria
bosta berriz Santa Ageda
horregaitikan kantari gatzoz
gaurkuan zuen aurrera

Ageda omenduz kantari orain
zuen aurrera azaldu
mendeetako ohitura zarra
ez dadin herrian galdu

Ama Birgina Maria,
miserikordiazko ama,
gutziz mirgarria,
konfiantza osoarekin
gaude zugana jarriak.

Ama andrea zuk badakizu
gu nola bizi geraden,
tentazio ta arriskua
besterik ez dago hemen,
zure alboan har gaitzazula
zeruko glorian, Amen.



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



Plenoak hilean behin izango dira aurrerantzean

Orain arte hiruhilean behin egiten baziren plenoak, aurrerantzean hilean behin izatea erabaki zuten joan den ostiralean. Bestalde, Udal Kirol patronatuaren oinarriak onartu ziren bai eta Gizarte Laguntzaile posturako oinarriak eta San Roken egin behar diren etxebizitzaren proiektua ere.

HB eta IUK batera aurkeztu zuten plenoari buruzko mozioa. HBren hitzetan, "instituzioak gero eta urrunago daude herritarrengandik". IU-EBren ustez, berriz, "plenoek gardenak eta demo-

kratikoak izan behar dute, herritarren partaidetza bultzatuz". Halere, bi alderdi hauen mozioaren aurrean PNVk beste bat aurkeztu zuen, Loiolak adierazi zenez, "plenoak hilean behin egitearen aldekoak gara,

beti ere gaiak badaude". Azkenik, PNVk aurkeztu zuena onartu zen, PSE, PP eta EAren botuekin. HB eta IU abstenitu egin ziren.

Bigarrenik, HB eta IUK ez ohiko plenoak zinegotzien laurdenak eskatu eta gehienez 72 ordu beranduago egitea proposatu zuten. EA eta PPK aldeko botua eman zuten arren, puntu hau ere atzera bota zen PNV eta PSEn botuekin.

Mozioaren hirugarren puntuan HB eta IUK herritarrek plenoetan parte hartzea eskatu zuten. Honen inguruan eztabaida sortu zen. HBren hitzetan, "plenoetan herritarrek hitzegitea debekatua egoterakoan, tentsioa sortzen da. Eskubidea balute, egoera ezberdina litzateke". PNV aurka azaldu zen, herritarrek beraien iritziak plazaratzeko toki egokia komisioak direla gaineratuz. EAren hitzetan, "herritarrek plenoetan hitzegitearen alde gaude baina komenigarria

litzateke nolabaiteko erregulazioa egitea. Horregatik abstenitu egingo gara". Puntu honen alde HB eta IUK egin zuten (4), PNV, PSE eta PPK aurka botatu zuten (9) eta EA abstenitu egin zen (3).

Bestalde, esan bezala, Udal Kirol patronatuaren estatutuak onartu ziren PNV, PSE eta EAren botuei esker. Zuzendaritza batzordearen osaketa erabakitzean eztabaida sortu zen, izan ere HBren usteetan, "herritarrek parte hartu behar lukete". Azkenik, aipatu batzordea PNVko Isaak Loiola eta Gotzon Arrietak, EAKo Ales Arrietak, HBko Juan Carlos Marcosek eta PSEko Jose Manuel Herrerok osatzea onartu zen. PP eta IUK parte hartu ahal izango dute batzordean baina botua emateko eskubiderik gabe. Aipatzekoa izan zen PPKo ordezkariak, Juan Carlos Avianek, euskaraz hitzegin zuela lehen aldiz plenoan.



Hasi da, dagoeneko, San Rokeko etxebizitzaren eraikuntza.

Garajeak **salgai** San Roke 12-14an

**ESKAINITZA
BEREZIA**

**SARRERA
EGOKIA**



**INFORMAZIOA
ETA SALMENTA:**

**JUARISTI
bulegoa**
Ubitarte 2, behea
Tel. 74 13 33
ELGOIBAR

Karkizano etxea

■ Bi etxe izan ziren Elgoibarren Karkizano izenarekin eta biak Urruzuno bailaran. Bata, goikoa, "etxea" eta "Susoa" da. Bestea, palazioa, jauretzea eta dorretzea, "Yusoa", behekoa. Etxea eta palazioa mugakideak ziren bata bestearengandik ehun metro ingurutara zegoelarik eta dudarik gabe, leinu beretik zetozen.

■ Karkizano "etxeok" eta "palaziok" deitura bera zuten (Karkizano) bertako bukaeran eta aro modernoaren hasieran. Biek burniola bana zuten. Bata bestearen ondoan zeuden, Deba ibaiaren eskuin aldean, Arriaga auzoko Olaeta parajeetan. Bien artean presa bat, ubide bat eta errota bat eta oinarritzko pieza "dormiente" bat (egur haundi bat bertan bi olen ardatz nagusiak eusten zirelarik) zeuden.

■ Karkizano etxea, gaur egun baserria dena, Arriaga auzoan,

Deba ibaiaren eskuin aldean eta izen bereko muinoaren gainean aurkitzen da. Martin Iñiguez, Elkanoren ondorengoa izan zena Laysaren espedizioan, bertan jaio zen eta horregatik aipatu etxeak ospea izan zuten.

■ Bi etxebizitzako baserria da egun. Bere ormetan ertaroko aztarnak apenas mantentzen dira. Bertakoek diotenez, arbasoei entzunda, antzinako etxeak arku zorrotzetan bukatutako leiho estuak zituen, besteak beste. Baina, aurreko mendearen bukaeran (1899an aipatzen du Ezenaarrok) erre egin omen zen eta berreraiki zenean eskantzetako harlanduak bakarrik aproetxatu ziren. Antzinan etxeak zuen forma gaur egungoa baino karra-tuagoa zen. Atentzioa deitzen du atzeko hormari itsatsia duen kontraorma sendoak.

PELLO ARRIETA



Gillermo Intxausti

(1881-1983)



- Seguran jaioa 1881eko otsailaren 10ean.
- Hargina zen eta San Lorentzoko bidea egitera etorri zen Elgoibarrera.
- Dominga Muguruza Elgoibarko alaba ezagutu eta ezkondu egin ziren, 11 seme-alaba izan zituztelarik.
- San Pedroko fabrikari hasi zen lanean hasieran. Gero kazagin (esketak egiten) ikasi zuen. Hasieran Arrillaganean eta gero Eibarko Ugartetxean.
- Gerra sasoiari kamillero ibili zen.
- Baserri mundua izugarri gustatzen zitzaion, ganadua, bai eta frutak lantzea ere. "Casablanca" izenez ezaguna den baserria erosi zuen eta hartara eman zituen lanetik kanpoko ordu libreak eta jubilatu osteko bizitza.
- Futbola, karta jokoa eta bolotan jardutea gustatzen zitzaizkion.
- Pertsona estimatua zen umore onagatik eta ezaguna zen herritarren artean haren aparteko osasuna.
- 102 urte hartu zituen. 100. urtemugan omenaldia egin zioten bere jaioterrian, Seguran, eta Elgoibarren ere bere sendiak omenalditxoak egin zion.
- 1983ko apirilaren 25ean hil zen.

Familiakoren bat edo lagunaren bat hiltzen bazaizu BARRENEk sentimenduan lagundu eta eskelak, urteurrenak edo esker onak azaltzeko toki bat eskaintzen dizu.



MOTZAK

Atletismoko emaitzak

Mintxeta Atletismo Taldeko korrikalariak Idiazabalen izan ziren asteburuan eskolarteko kros lasterketan. Infantilen mailan, Mireia Huidobrok txapela eskuratu zuen eta hirugarren postuan Oihana Chico geratu zen. Mutiletan seigarren postua Angel Quintanarentzat izan zen eta Jon Mekolalderentzat 13. lekua. Alebin nesketan Ana Etxaniz bosgarren iritsi zen eta Alaitz Merino seigarren. Mutiletan Jabier Ausin izan zen Elgoibarko partehartzaile bakarra. Benjaminetan Mikel De Pablo 6. helmugaratu zen eta Julen Merino 12. postuan. Gorka Sanchezek, berriz, Lasarteko krosean korritu zuen, kadete mailan, eta laugarren geratu zen. Hilaren 11n, larunbata, Gipuzkoako Eskolarteko Kros txapelketa burutuko da Mintxetan eta Gorkak zein beste korrikalariak ere, emaitza politak eskuratzeko aukera izango dute. Sari banaketa ostean, musika kate baten zozketa egingo da. Zozketarako txartelak salgai dituzte Mintxetakoek 100 pta.ren truke.

Txirindulari zuzendari ikastaroa Elgoibarren

Deba bailarako Udalek, Elgoibarkoak barne, txirindulari zuzendari titulu eskuratzeko ikastaroa antolatuta dute. Euskaraz izango da ikastaroa otsaileko egun hauetan: 9an eta 10ean, 16 eta 17an eta 23 eta 24an. Bailarakoentzat 9.000 pta.koa izango da matrikularen zenbatekoa eta kanpokoentzat 10.000 pta.koa. Izena emateko Kirol Zerbitzuko 74 44 15 zenbakira deitu.



Ines Segura:

"Konpetizioa gogoko dut baina urduri jartzen naiz"

■ **Non ikasi zenuen igeri egiten?** - Orain dela bost urte edo, Bartzelonako lagun batzuk Espainiako txapelketara joan behar ziren eta haiekin hasi nintzen igerileku batean.

■ **Aurten denboraldi ona egin duzu.** - Hasieran nire markak berdindu nituen eta gero distantzia gutxietan hobetu egin nituen.

■ **Zein distantzia doakizu hobetoen?** - 100 metrotik aurrerakoak. Hala ere, denetik egiten dut: 50 metro, 100, 200, 400... 800 sekula ez. Entrenatzaileak aurrerago egingo dugula esaten digu.

■ **Zergatik?** - Distantzia luzeak egiteak entrenamendu gehiago eskatzen duelako. Hiru egunetan izaten ditugu entrenamenduak, ordubete egunero eta 800 metro egiten dituztenek bi ordukoak egunero.

■ **Estilorik gogokoena?** - Bularra edo braza. Gogorrena tximeleta da. Besoak eta hankak zabal-zabal eramane behar dira eta horrek asko nekazten du.

■ **Hankak ala besoak dituzu indartsuagoak?** - Besoak. Besoekin indar gehiago egiten dut; hankak berriz, ia ez ditut mugitzen.

■ **Konpetizioa gogoko duzu?** - Bai, baina oso urduri jartzen naiz. Azkenengo aldiz Gipuzkoako



Txapelketan ia negarrari eman nion. Hasieran, igeri egiten, hobeto ikas-teagatik hasi nintzen baina gero konpetizioa ezagutu nuen eta gustatu ere bai.

■ **Markarik eskatzen dute konpetizioan aritzeko?** - Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketara joateko bai baina herrietan izaten diren txapelketetan parte hartzeko ez da markarik behar.

■ **Zure adineko nesken artean zer nolako maila dago?** - Nahiko ona. Entrena-tzen duguna entrenatuta nahiko ondo. Beste herrietan maila ona dago, Legazpikoak eta Ondarroakoak dira onenak.

■ **Itsasoan igeri egiten duzu?** - Ez, ez zait gustatzen, olatuak eta algak daude eta ez da bat ere komodoa. Jolasean ibiltzen naiz.

■ **Uretako kirolrik?** - Surf-a, wind-surf-a, bela, pedalak, arrauna... Udalekuetan ibili nintzen.

■ **Zein arrainek bezala igeri egitea nahiko zenuke?**

- Marrazoak bezala. Errespetua diot baina izugarri gustatzen zait nola egiten duen igeri.

• Adina: 12
• Bainujantzia ala bikini? Bainujantzia
• Zein itsasotako uretan egingo zenuke igeri? Tropikoko ur gardenetan



MEKANOSA
Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



karkizano
San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49



Arrieta
moda

San Bartolome 18
☎ 74 08 49

URASANDIKO FUTBITO TXAPELKETA



OPTIKA

Atzean tente: Raul Romero, Nicolas Jimenez, Miguel Alvarez eta Fernando Mancebo. Makurtuta: Jorge Romero, Ernesto Sanchez, Miguel Angel Dakinta eta David Rey. Falta dira: Gorka Muñoz eta Carlos Alvarez.

EKIPOKERIAK

- **IZENA:** Ikus Optika
- **ZERGATIK IZEN HORI?**
Patrozinatzen gaituen etxearen izena delako.
- **SORRERA:** 1995-96 denboraldia.
- **AURTENGO ASMOAK:** Spartak de Braga taldearen aurretik geratu eta Ligarako sailkatu "ahal bada behintzat".
- **B/B ADINA:** 20/21 urte.
- **LORPENAK:** Oraingo bat ere ez.

GOLAK

● GOLEGILERIK ONENAK:

A TALDEA: J. Aldazabal
(Luky Luke) **6**

B TALDEA: Fernando Mancebo
(Ikus) **11**

● GOL GUTXIEN JASO DITUEN ATEZAINA:

A TALDEA: F. Boo (PSK) **5**

B TALDEA: Manzisidor
(Sanroketarra) **7**

A Taldea	PUNTUAK
1. P.S.K.	14
2. ORAIKO DISKO	13
3. KARKIS	13
4. KING KONG	12
5. PEDRUSKOS	8
6. LUCKY LUKE	8
7. BERROGEI DURO	5
8. S. KARAPOLA	4
9. S. PITXOTE	3
10. ATERPE	0

B Taldea	PUNTUAK
1. SANRROKETARRA	12
2. ALDAVAS	10
3. KOSAKOS	10
4. ORBELA	8
5. S.BRAGA	7
6. IKUS OPTIKA	6
7. AMETSA	6
8. ROKE	4
9. REVEL URBI	3
10. UDABERRI	2

EMAITZAK

Futbola

Elgoibar 2 - Idiazabal 1 (**Jubenilak**)

Haundi 1 - Touring 0

Elgoibar 2 - Antoniano 0 (**Neskak**)

S.D. Eibar 11 - Elgoibar 1 (**Infantilak**)

Gure Ametsa 1 - Elgoibar 3 (**1. erreg.**)

Antiguoko 1 - Elgoibar 0 (**Kadeteak**)

Saskibaloia

Andraitz 72 - Elgoibar 66

Eskubaloia

Elg. Pagoaga 20 - Usurbil 7 (**Kad. neskak**)

Elgoibar 25 - Arrate 19 (**Kad. mutilak**)

Legazpia 28 - Elgoibar 23 (**Jub. mutilak**)

Txankakua Elg. 20 - Hondarribi 20

(**Seniorrak**)

Futbitoa

Aterpe 2 - Berrogei Duro 5

Pedrusko 3 - S. Karapola 7

S. Pitxote 2 - Oraiko Cafe 12

Lucky Luke 2 - King Kong 4

P.S.K. 1 - Karkis 3

Areto futbola

Hosfrinor 1 - Elgoibnar 2 (**1. maila**)

Hogar Extre. 2 - Elgoibar 1 (**2. maila**)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 3

17,00 C.D. Elgoibar - S.D. Eibar (**1. erreg.**)

Igandea, 4

10,00 S.D. Eibar - Antiguoko (**Kadeteak**)

12,00 C.D. Elgoibar - La Salle (**Infantilak**)

15,30 Beti Sutan - Hernani (**2. erreg.**)

(Igoera fasea)

Saskibaloia

Larunbata, 3

19,00 Elgoibar - Donostiako Hondartza

Eskubaloia, Kiroldegian

Igandea, 3

12,00 Elgoibar - Egia (**Jub. mutilak**)

Futbitoa, Urasandin

Igandea, 3 (Arbitraia: Karkis)

10,00 Udaberri - Orbela

11,00 Sanroketarra - Rebel Urbi

Kosakos - S. Braga

12,00 Ikus Optika - Aldavas

Roke - Ametsa

Areto futbola

Ostirala, 2

22,30 Elgoibar - Bar Nerea (**1. maila**)

SAN BLAS ETA SANTA AGEDA

Ospakizunez beteriko astebukaera

Astebukaera honetan hiru santuren egunak ospatzen dira. Gaur, ostirala, Kandelaria. Bihar, hilak 3, San Blas eta astelehenean, otsailaren 5ean, Santa Ageda. Etxe askotan labak pili-pilean ibiliko dira San Blas opil goxoak egin eta egin, ohiturak dioenez, hura bedeinkatu eta janez gero, urte osoa katarrorik hartu gabe eman daiteke eta. Bestetik, Santa Eskean bi talde aterako dira Elgoibarren. Elgoibarko Izarrarena bata eta Etxegiñak sortutakoa bestea.



Elgoibarko Izarrako koruek herriko auzo eta baserrietan ibiliko dira.

Bihar, larunbata, Etxegiñak sortutako koruak aterako dira. Santa eskean, herriko kaleetan ibiltzen dira goiz osoan zehar. Bukatu, Errosario kaleko Ama Birjinari Salbea kantatuz bukatzen dute eta ondoren, beti izaten dute bazkaria Baltasar elkartean. Aspaldian jende gaztearen faltan zebiltzala eta kexu ziren baina badirudi erreleboa bada-goela. Gure artera ekarri ditugu aurten lehen aldiz aterako diren hiru neska gazte.

Maite Arenal, Idoia Epelde eta Evelyn Santosek 12 urte dituzte. Hiru neska hauek aurten lehen aldiz Santa Agedako koruetan hartuko dute parte, “Regina irakasleak esan zigun jende nagusixantzat bakarrik ez zala eta horregatik animatu ginan”. Santa Ageda nor zen galdetu diegu eta “bularrak moztu zizkioten andra bat” erantzun digute. Eguna ondo pasatzeko asmoarekin aterako dira bai eta ahalik eta diru kopururik handiena biltzekoarekin ere. Dena dela, “ohitura zaharrak mantentzia gustatzen jakulako” hartu zuten erabakia. Bihar larunbata, goizean goiz hasita herriko kale guztiak zeharkatuko dituzte kantatzen, “koplak eta

salbea”. Eta bukatzeko bazkaria izango dute elkarteren batean, “odolostia ematen dabela esan digute”.

Baserriz baserri

Elgoibarko Izarra hirugarren aldiz aterako da aurten Santa Eskean. Otsailaren 4ean, igandea, goizean goiz hasi eta egun osoan zehar, herriko auzo guztietan ibiltzen dira kantuan, baserriz baserri. Gaztetxoak, Bertso Eskolako bertsolarien laguntzaz, goizeko 9etan atera eta San Lorenzo auzoan ibiliko dira. Nagusiak, berriz, bi taldetan banatuta, goizeko 8,30etan hasi eta gaueko 9ak arte San Migel, Arriaga, San Roke eta Urruzuno auzoetan zehar arituko dira. Ohitura berreskuratu nahian ekin zioten eta baserriarren artean estimazio handia du. Izan ere, edozein ordutan jaoten badira ere, goizeko ordu txikiak izanda ere, koruak koplatan hasi orduko, atarira jaisten dira, zerbait eskaintzen die joateko eta dirurik ere beti uzten dute.

Biak, kalekoa zein baserrieta-koa, mantendu beharreko ohiturak dira. Eta bada jenderik hortan diharduena, urtero urtero.



Neska gaztehauek kalez kale arituko dira Santa eskean.

Gurean Euskaraz

Elgoibartarren %70a, gutxi gora-behera, euskaraz hitz egin eta ulertzeko gai da. Iñasio Garmendiak, Elgoibarko Izarrako lehendakariak joan den larunbatean Udaletxeko Pleno Aretoan, "Gurean Bai" hitzarmenaren aurkezpenean emandako datuak dira. "Erabili, ordea, %32ak baino ez du egiten". 'Gurean bai' hitzarmenak herriko 51 elkarte sinaturiko konpromezua jasotzen du, euskara beraien elkartean bultzatu eta erabiltzeko konpromezua.

Udalaren babespean, Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak bultzatutako hitzarmena sinatu zuten urtarrilaren 27an herriko 51 elkarte eta erakunde ezberdinen ordezkariak. Kultur, kirol, ekimen sozial, komunikabide, ikastetxe eta bestelako elkarten konpromezua paperean jasota geratu zen. Aurkezpenean izan zen Euskaltzaindiko kide den Miren Azkaratek, euskararen normalkuntzaren bidean "horrelako ekintzen beharra" azpimarratu eta, "horrelako ekitaldietan parte hartzeak ematen didan poztasuna" aipatu zituen.

SIADECOK euskararen inguruan egindako azterketaren datuen arabera, "Elgoibar herri euskalduna dela erakusten dute datuek", adierazi zuen Kike Amonarriz ikerketaren arduradunak, "baina erabilera askoz murriztagoa da. Hortaz, erabilera da erronka".

Erabilera bultzatu nahian herriko elkarteak inplikatzeko funtsezkoa da; horixe da izan ere 'Gurean Bai' hitzarmenaren helburua. Erdaraz



Goiko argazkian Miren Azkarate euskaltzaina, Iñasio Garmendia Elgoibarko Izarrako presidentea, Guillermo Garate alkatea eta Kike Amunarriz SIADECOKo teknikaria. Beheko argazkietan herriko elkarteetako ordezkariak sinatzeko unean.

bizi diren elkarteetan euskarari sarbidea ematea da asmoa eta euskaraz funtzionatu nahi duten elkarten hitzarmenaren helburua, elkarteak euskaraz bizitzea: harremanak, korrespondentzia, barne funtzionamendua etab.



GUREAN BAI
Euskararen aldeko

euskaraz burutuz. Hitzarmenaren bultzatzaileek laguntza guztiak eskainiko dizkiete sinatu duten entitateei, lan honetarako teknikari bat kontratatu dutelarik. Elkarteek beraien aldetik, elkartean bertan euskara dinamizatzeko ardura izango duen euskara arduradun bat izendatuko dute, plagintzaren teknikariarekin harremanetan egongo dena.

Finantziazioa eta iraupena

Plagintzak hiru urteko iraupena izango du eta ondoren jarraipena eman ala ez erabakiko da. Hiru urte hauetarako 9.200.000 pta.ko aurrekontua dauka eta honen ardura Udalak hartu du bere gain. Hitzarmena irekia da; hortaz, edozein entitatek sina dezake hitzarmena nahi duen unean.

2 OSTIRALA

22,30 ANTZERKIA

Taldea: Bederen bat
Antzezlan: Zu(t)gabe
✓ Herriko Antzokian
Sarrera: 500 pta.

3 LARUNBATA

09,00 SANTA AGEDA KORUAK

✓ Plaza Handian

12,00 INTSUMISIOAREN
ALDEKO KONTZENTRAZIOA

✓ Plaza Handian
Antolatzailea: Talde antimilitarista

19,30-22,15 ZINEA

“El presidente y Miss Wade”

4 IGANDEA

09,00 BASERRIZ BASERRI SANTA
ESKEA

✓ Plaza Handian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

16,30 ZINEA

“El regreso de Lassie”

19,30-22,15 ZINEA

“El presidente y Miss Wade”

5 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

“El presidente y Miss Wade”

6 ASTEARTEA

22,00 ZINEA

“El presidente y Miss Wade”

7 ASTEAZKENA

20,00 "EZKER ABERTZALEAREN
ALTERNATIBA DEMOKRATIKOA"ren
AURKEZPENA

✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: HB

8 OSTEGUNA

18,00 ARGAZKI ERAKUSKETA

Egilea: Pedro Luis Ormazabal
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Ongarri

19,00 ESOREn AURKEZPENA

6. eta 7. mailako gurasoentzat.
✓ Arreiturre Institutuan

9 OSTIRALA

18,30 ODOL ATERALDIA

✓ P.M. Urruzuno 8an

22,15 ZINEA

“Golden Eye”

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
3, larunbata:	Yudego	Anduaga
4, igandea:	Yudego	Anduaga
5, astelehena:	Bidasolo	Bidasolo
6, asteartea:	Bidasolo	Etxeberria
7, asteazkena:	Bidasolo	Ormazabal
8, osteguna:	Bidasolo	Yudego
9, ostirala:	Yudego	Anduaga

FARMAZIEN HELBIDEAK:

Anduaga: Mendarozabal 1, Mendaro
Tel. 75 61 42/75 60 27

OKINDEGIA:

12, igandea: FOTERO

ZineA

El presidente y Miss Wade

EEBBetako presidentea eta emakume baten arteko maitasun istorioa kontatzen du pelikulak. EEBBetako presidentea, Andrew Shepherd, alarguna da eta alaba bat dauka. Sidney,

Casablancakoan laguntza lortu nahi duen ekologi talde bateko kidea da. Ekologisten programarentzako babesa lortzeko asmotan Sidney-k presidentea ezagutzen du. Andrew-k bere bikote izateko eskatuko dio Sidney-ri, eta bien artean maitasun sentimendua gorputzen joango da. Umore tonuan kontatua, gauzarik sinpleena ere, loreak eroatera joatea esaterako, presidente batentzat zein zaila den erakusten du filmeak.



Salerosketak

Ford Escort XR3, 16 v., SS AN kotxea saltzen dut.
☎ 74 34 63 Xabi (gauzez)

Errepideko bizikleta salgai. CONTINI markakoa. Shimano 105 STI Mavic. 100.000 pta. Oso ondo dago.
☎ 74 26 49

ERREPIDEKO BIZIKLETA salgai. Egoera oso onean eta prezio interesgarria.
☎ 74 28 56

Haurrentzako Ihauterietako jantziak salgai (Txano gorritxu, Dama antigua eta arabiarrak)
☎ 74 14 69

C 15 FURGONETA erosiko nuke. Gasoila.
☎ 74 36 34

RETROPROIEKTORE bat eta "Le sana frontieré" frantseseko LIBURUA erosi nahi ditut.
☎ 74 04 59

Etxebizitzak

ALTZOLAN BUHARDILA BAT alokatzen dut. Jantzita eta baldintza onean.
☎ 74 37 41

Mendaron ETXEBIZITZA BAT SALGAI. Buztinalde plazan. Amueblatua.
☎ 77 05 90 Angel Mari

BUHARDILA BAT saltzen da Eibarren. Erreformatua. Prezio interesgarria.
☎ 10 76 09 Fernan

ETXE BAT SALTZEN DA Errosario kalean.
☎ 74 37 68

Garajeak

Garaje bat ALOKATZEN dut pista beltz azpian. Marraduna eta kotxea garbitzeko aukera.
☎ 74 01 77

Garaje bat SALDU nahi dut. Marraduna. Pista beltzean. Oso merke.
☎ 45 49 29

GARAJE BAT SALTZEN dut pista beltz azpian, marraduna.
☎ 74 39 19

Garaje ITXI BAT SALTZEN da Arregitorren.
☎ 74 30 81

Lana

GAIXOAK ZAINTEKO prest dagoen emakume heldu bat naiz. Esperientzia daukat.
☎ 74 04 86 Victoria

Emakume helduak ETXEKO LANAK EGIN EDO PERTSONA NAGUSIAK zainduko lituzke.
☎ 74 32 51 Pili

TITULUDUN ERIZAINA, etxeetarako erizain edo praktikante zerbitzuak egiteko prest dago.
☎ 74 02 33 Marta Diego (Erizain diplomatua)

Agurrak

Eskerrik beroenak hareneko txinoari eta bertako neskei, nere egunean halako era goxo eta egokian zoriontzearren.

Santa Ageda bezperan ZORIONAK Joseba "Deusto".

URTARRILEAN

Jaiotakoak

- ▶ Daniel García Castro (Urtarrilak 10)
- ▶ Leire Legorburu Breznes (urtarrilak 17)
- ▶ Ainhoa Urbizu Olivares (urtarrilak 20)

Ezkondutakoak

- Jon Agirrezabala eta Amaia Peñagarikano (Urtarrilak 13)

Hildakoak

- Mari Angeles Unzueta Iriondo, 71 urte (Urtarrilak 5)
- Mari Carmen Fraguas Fernández, 88 urte (Urtarrilak 9)
- Jesus Lizarralde Arrieta, 88 urte (urtarrilak 10)
- Salomé Vilches Iribecampos, 96 urte (Urtarrilak 20)
- Amaia Viñaras Uria, 28 urte (Urtarrilak 31)



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak. Donostia eta probintziako eritetxe zentruetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 74 13 27 (Etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07 01

PROIEKTU


GURE GAZTEEN ETORKIZUNA LANTZEN

HEZKUNTZA ESKAINTZA
1996-97 IKASTURTERAKO
D.B.H. 1. eta 2. (12-16 urte) E.S.O.

GARRAIOA

JANGELA


Zerbitzu subentzionatua,
zaintzailearekin.



ARREITURRE (Institutua)

IRAKASLEGOA

OHOkoi Goi Zikloan ematen ari diren irakasleek emango dute bi kurtso hauetan. Ongi prestatuak eta euskaldunak.



ORDUTEGIA

TUTORETZA

Orientazio departamentuak
koordinatuko du tutoreen lana.



EZENARRO (Meka)

D.B.H.O.

Derrigorrezko Bigarren
Hezkuntzaren Ondorengoa

16-18 urte

- Batxiler berriak 1. eta 2. mailak
Zientzietako Batxilergoa
Humanitate Batxilergoa
Teknologi Batxilergoa
- ERDI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOAK
(1 eta térdi-2 urte)
- GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOAK (2 urte)

BALIABIDEAK

- Soinketa gela handia.
- Jolaserako pistak eta aterpeak.
- 2 bideo gela.
- Natur zientzietako laborategia
- Liburutegia
- Bainu eta aldagela zerbitzuekin.
- Polikiroldegia zerbitzua.
- Antzez eta hitzaldi aretoa.
- 2 informatika gela
- Fisika eta kimikarako 2 laborategi

IMH

16-18 urte

- ERDI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOAK
(2 urte)

18-20 urte

- GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOAK
(2 urte)

AURREMATRIKULA EPEA ZABALIK otsailaren 1etik-20ra

HERRI ESKOLA (☎ 74 08 79) Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza (2-12)

MENDAROKO IKASTOLA (☎ 75 61 41) Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza
(2-12)

ARREITURRE (☎ 74 02 67) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16)


PROIEKTU



ELGOIBARKO HERRI ESKOLA



"Gure eskola publiko guztiak elkarrekin joateko garaia zen"




"Eskola Publikoaren Informazio argiak eta eskolaren Gestio egokiak konfidantza osoa ematen didatelako"

"Heziketa euskaldun eta herrikoia aldea naiz"



"Gustura nago lan talde aberats eta dinamiko batean parte hartzen dudalako"



"Nere seme-alaben Hezkuntzarako gauzatzen den Proiektuan parte hartu nahi dudalako"




"Beraiek eta beraien etorkizuna kontuan izanik"

"Hau da nire herria eta hau nire eskola"



"Elgoibarko eskola publiko eta euskaldunaren alde, onartzen eta nireganatzen dudan errealitate eta lorpen historiko bat delako"



AURREMATRIKULA EPEA ZABALIK otsailaren 1etik-20ra

HERRI ESKOLA (☎ 74 08 79) Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza (2-12)
MENDAROKO I KASTOLA (☎ 75 61 41) Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza